



Hautsi etiketak!

Publizitateak ez dezala zure ordeaz erabaki

MAILEGATZEKO MATERIALA

INFORMAZIO-GIDA

Kontsumobideko Prestakuntza eta Informazio Zentroek egiten dituzten prestakuntza- eta informazio-ekintza guztietan zeharka sartzen dute genero-ikuspegia, berdintasuna, komunikazio ez-sexista eta kontsumo arduratsuko ohiturak sustatzen dituzten kontzeptuak, lexikoa eta jarraibideak erabiliz, generoen artean bereizketarik egin gabe.

Bizi garen kontsumo-gizartean ikuspegi berdinzaleagoa sustatze aldera, material didaktiko hau mailegu-erregimenean jartzen da interesa duten elkarte eta taldeen eskura, publizitateak transmititzen dituen rol eta estereotipo maskulino eta femeninoen inguruan hausnartzeko eta kontsumitzeko jarrera kritikoa garatzeko.

1. Helburuak

- Kontsumitzaileen gogoeta eta ekintza sustatzea publizitate diskriminatzailearen aurrean.
- Berdintasunezko ereduen alde sentibilizatzea, kontsumoaren eta publizitatearen esparruan zabaldutako rol sexisten aurrean.
- Publizitateak kontsumo-gizartean duen bilakaerari buruzko hausnarketa egitea, genero-ikuspegitik. Belaunaldien arteko ikuspegia.
- Genero-ikuspegitik diskriminazioa ematen ez den kasuetan, erosketa eta erabilera arduratsuko irizpideak sustatzea.

2. Edukiak

- Publizitatea
 - Produktuak eta zerbitzuak zabaltzeko eta saltzeko ezarritako rol eta estereotipo sexistak.
 - Gorputzaren kultura sustatzea, irudia zaintzea generoaren arabera.
- Internet eta sare sozialen bidezko publizitate-modu berriak.
- Kontsumo arduratsu, kontziente eta kritikorako baliabideak.

3. Metodologia

Materiala informazio-baliabide/erakusketa-baliabide gisa erabil daiteke, 2 roll up-ekin. Jardueren koadernotxoak banaka egin daiteke, autoerreflexio-ariketa gisa, edo taldeko jarduera gisa, gaiari buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatuz.

4. Materialak

- 2 roll ups interaktibo. Erakusketa-materiala, mezu eta baliabide digitalekin (QR).
- Banakako eta/edo taldeko hausnarketarako jarduerak biltzen dituen koadernotxo.
- Publizitateari eta kontsumoari buruzko aholkuak biltzen dituen dekalogo.
- Infokontsumo "markatu aldea" webgunean www.kontsumobide.eus

5. Mailegua eskuratzea

Mailegatzeko materiala 15 egunez erabili ahal izango da.

6. Bestelako baliabideak

Kontsumobide prestakuntza-zentroak. Publizitateari, erosketari eta zerbitzuei buruzko prestakuntza-ekintzak.

7. Beste talde batzuk

Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala
✓			✓

Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua	Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena
✓			✓

8. Web-orriak

- Kontsumobide. Kontsumoko Euskal Institutua.
www.kontsumobide.eus
- Kontsumobide Bloga: [Hautsi etiketak! Publizitateak ez dezala zure ordeaz erabaki](#)
- Emakunde. BEGIRA Programa. Berdintasuna komunikabideetan. Eusko Jaurlaritza.
<http://www.emakunde.euskadi.eus/proiektu/-/publizitatea-komunikazioa/>
- Berdintasunaren Behatokia. Emakumearen Institutua. Espainiako Gobernua
<http://www.inmujer.gob.es/areasTematicas/comunicacion/programas/home.htm>
- #OVER liburuzka
<http://www.inmujer.gob.es/areasTematicas/comunicacion/programas/docs/OVER.pdf>
- DIE zigilua
<http://www.igualdadenlaempresa.es/recursos/convocaDIE/home.htm>
- Bidezko Merkataritza. Fair Trade
<https://fairtrade.es/es/>

9. Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus